

Euskaraz  
bizi +  
Lautadako  
produktuak



LEK

# EKONOMATUA

- Aguraingo Kale Nagusia 13 -

Lautadako Euskararen Komunitatea

## ZER DA EKONOMATUA?

**Hizkuntza-ohiturak euskarara eramateko gune bat da ekonomatua.** Euskaraz aritzen diren LEK-eko bazkideei euskaraz eroso aritzeko gune bat eskaini nahi diegu, **tokikoak eta ekologikoak diren produktuak eskura jarritz.**

**Baina hizkuntza-ohituren aldaketan urrunago joan nahi dugu** eta hizkuntza-portaera berri batzuk ere sustatu nahi ditugu ekonomatuan:

-Euskaraz ulertu baina erdaraz hitz egiten duten bazkideei ere euskaraz egingo diegu; ekonomatua bazkideak artatuko dituen boluntarioak euskarari eutsiko dio kasu horietan, ez da erdarara pasatuko.

-Euskaraz gutxi edo oso gutxi ulertzen dutenei euskara egokituan egingo diegu LEK-ekonomatuan. Kasu horietan Ulerrizketa metodologiaren hizkuntza-portaerak praktikara eramango ditugu ekonomatuan: poliki hitz egin, esaldi motzak, aditz errazak, erdarazko hitzak tartekatuz eta ea ulertu duen sarritan galdetu.

Lautadako Euskararen Komunitateak sustatutako ekimena da ekonomatua, eta horren **kide diren bikote, familia eta norbanakoen artean** harremanak egiteko, salerosketak egiteko edota truke egiteko gune bat da; ez da ohiko denda bat.

## ZERGATIK EROSI EKONOMATUAN?

-Lautadan **euskaraz bizitzeko beste aukera bat sortzen** lagunduko duzuelako, Lautadako Euskararen Komunitatea autofinantzazioan lagunduko duzue.

-Jango dituzuen elikagaien ekoizteko era eta nekazar errealitatea gertutik **ezagutzeko aukera** izango duzue.

-**Bertako nekazaritza** bultzatuko duzue eta ekoizle berriak egotea ahalbidetuko duzue, Lautadako elikadura burujabetzan zuen alea ipiniz.

-**Garraioak** eragindako kutsadura gutxituko duzue. **Zabor gutxiago** sortuko duzue.

-Guztien ongizaterako **ekonomia eraldatzailea** sustatuko duzue, Lautadako **ekoizleei prezio justua** ordainduz, lan duina sortuz.



# ZER AURKITUKO DUZUE?

Ekonomatuan **euskaraz bizitzeko gune bat** aurkituko duzue.

**Eta, balore etikoetan ekoiztuak eta nekazaritza ez-produktibistan ekoiztutako produktuak aurkituko dituzue;** ekologiko ziurtagiria dutenak edo gabe. Lautadako barazkiak, eztiak, ogia, irinak, fruitu lehorrak, lekaleak, gaztak, kontserbak, arrautzak, heste-beteak, pattarrak, belarrak... Eta beste produktu batzuk ere: artisautza, garbiketa eta kosmetika produktuak... Gure web gunetik produktu freskoen eskaera egin ahal duzu eta ostegunetan jaso.

## Ordutegi irekiko dugu:

astearteetan 10:30-13:00, 17:00-19:30  
ostegunetan 17:00-19:30  
larunbatetan 11:00-13:30

Ekonomatuan ekoizleen lana balioztatu nahi dugu. Eurekiko harremana zuzena da. **Haiek zehazten dute jaso nahi duten diru-saria.** Ekonomatuak ehuneko txiki batzuk aplikatzen dizkie ekoizleek jarritako prezioei, bi helbururekin: ekonomatuaren gastuei aurre egitea eta Lautadako Euskararen Komunitatearen egitasmoak finantzatzea.

**Ekonomatuan ez daukagu dirua irabazteko asmorik.**

# ZER DA Lautadako Euskararen Komunitatea?

**Irabazi asmorik gabeko elkarte bat da.** Lan boluntarioan oinarritzen du bere jardura, hau da, komunitatearen alde norberaren erabakiz lan egiten duten pertsonen lanean.

Euskara erabiltzen duten edo gehiago erabili nahi duten Lautadako kolektibo, lantegi, establezimendu, batzar administratibo, bikote, familia eta lagun-kuadrillen **bilgunea** da. Entitate eta talde horiek **artikulatzeko** gune izatea nahi dugu, elkarrekin norabide bateratuan aritzeko. **Taldea** jartzen dugu erdigunean, hizkuntza-ohiturak ulertzeko eta aldatzeko sistema eraldatzaile gisa. Lautadako arlo sozial guztietan **euskararen erabilerrako baldintza egokiak sortu nahi ditugu.** 2017an eratu zen eta **mugimendu soziala** da; eragile eta iraunkorra izatea nahi dugu.

Komunitatearen helburuarekin bat egin eta euskara gehiago erabiltzeko konpromisoak hartzen dituzten entitate pribatu, familia, bikote eta lagun-kuadrillak **izan daitezke Komunitatearen kide.** Norbanakoak norbanako bazkide izan daitezke.



*LEK-ekonomatua es un proyecto para la utilización del euskara entre las personas asociadas a la Comunidad del Euskara de la Llanada. Las personas que no entienden el euskara pueden ser también socias de la Comunidad del Euskara, llevando a la práctica una serie de comportamientos lingüísticos que faciliten la utilización del euskara en su entorno: hacer el intento de entender si les hablan en euskara, aceptar y facilitar su utilización aunque no entiendan todo lo que se dice, tener voluntad de aprender, y pueden utilizar las palabras que sepan. En el local del economato, a las personas que no entienden el euskara se les hará en euskara la comunicación básica de la actividad: saludos, nombres de los productos, números, frases muy cortas y sencillas... con el objetivo de que den pasos funcionales en la comprensión del euskara.*



Kale Nagusia 13 behea  
01200 Agurain (Arabako Lautada)  
lautadan.euskaraz@gmail.com  
605 29 09 51  
www.lautadaneuskaraz.eus